



Ormaiztegui Udala

DEIALDIA: ORMAIZTEGIKO UDALEKO KULTUR TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA

Hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileak, 2020ko azaroaren 17ko bilkuran, honako hau erabaki du:

LEHENA: Hautagaiei beraien hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko tituluak eta ziurtagiriak azaroaren 24a baino lehen Udaletxean konpultsatzera etortzeko deitzea.

BIGARRENA: 4. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta EZ daukaten hautagaiei Gasteizen azaroaren 24an IVAPEko deialdi bateratuan idatzizko proba egiteko deitzea, goizeko 08:30etan Gasteizko Seminarioan (Beato Tomás de Zumarraga etorbidea, 67. 01008 Gasteiz).


HIRUGARRENA: 3. Ariketako proba psikotekniko idatzia egiteko deitzea, azaroaren 25ean, goizeko 10:00etan, Ormaiztegui "Eskola Zaharrak" Gizarte Etxean (Gabirialde, 10).

LAUGARRENA: 3. Ariketako elkarrizketa egiteko banakako deia proba idatziaren egunean zehaztuko dela adieraztea, beti ere, honako egutegi honen barruan:
Abenduaren 2an 09:30etan, 11:00etan eta 12:30etan.
Abenduaren 3an 09:30etan eta 11:00etan.

Izangaiek beren nortasun agiriaz bertaratu behar dira.

Ormaitegin, 2020ko azaroaren 17an.

Epaimahaiaren idazkariak,


Sin. Miren Begoña Antxustegi Bengoetxea